

JANE RENDELL

Emakumeak arkitekturan

JANE RENDELL irakaslea da UCLko Bartlett School of Architecture-n. Arkitektoa eta arkitekturaren historialaria da.

Zer da espazioaren estetika feminista bat? Zein da arkitekto emakumearen rola? Egileak generoaren eta espazioen eraikuntzen arteko loturak argitzen ditu.

Eztabaida teoriko, historiko eta kritikoek izan duten aldaketa itzel eta bizkorrak ikusita, batez ere feminismoaren alorrean gertaturikoak, arkitektura generoarekin lotuta dagoela ulertzeak premiazko kontestualizazioa eskatzen du. Azken bost urteetan gutxi gorabehera, aldaketa berebizikoa gertatu da generoa, feminismoa eta arkitekturari buruzko ideietan, eta egungo eztabaidak historia intelektual baten barruan kokatzea hil edo biziko bilakatu da, hartara gaur egungo ideia horien oinarri eta garapenari buruzko ezagupenak areagotzea posible egiteko.

Emakumeak arkitekto heziketa eta lanbidetik salbuetsita egotea ez da soil-soilik arazo historikoa: arazo kritikoa ere bada gaur egun arkitekto dabiltzan emakumezkoen rolari dagokionez. Esate baterako, Erresuma Batuan, nahiz eta emakume askok arkitektura ikasketak hasi, arkitektura ikasleen % 27 dira emakumeak, eta emakumezko ikasleetatik %9k bakarrik amaitzen dituzte eta arkitekto gisa jardun. Lanbide honetan, arkitekto gisa zerrendatutako emakumeen kopuruak gora egin badu ere —1975eko % 5etik 1997ko %11ra—, kopuruak lanean ari diren hamar arkitektotik bat bakarrik emakumezkoa dela erakusten digute, azken finean.

Emakumeek arkitekto bezala duten rolari dagokionez, azpimarratzen den alderdi garrantzitsuenetako bat izan da emakume arkitektoen jardunak duen bestelako izaera. Haietako askok erabaki dute, eta erabakitzen dute oraindik ere, ikusezinak izaten jarraitzea, «arkitekto» gisa lan egitea eta emakumeak direla gehiegi ez nabarmentzea. Emakume horiek puntako profesional moduan egin dute lan, arkitekto autonomo gisa nahiz arkitektoburu moduan beren estudioetan. Adibide historikoen artean Eileen Gray, Lilly Reich, Truus Schröder, Charlotte Perriand ditugu eta, oraindik orain, Zaha Hadid, Itsuko Hasegawa, Eva Jiricna, Judith Scheine eta Margaret Duinker. Arkitekto puntakoak emakumezkoak izan dira zenbaitetan, hala nola Architectonica, D/PZ, Future Systems, König Eizenberg eta Werkfabrik estudioetan.

Gizon-emakume bikote batek osatutako arkitekto estudio batean emakume-arkitektoaren rola hartzea izan da luzaro emakumeek aukeratzen zuten

arkitektura praktikatzeko modua, eta adibideak ez dira falta: Jane Drew eta Maxwell Fry, Alison eta Peter Smithson, Charles eta Ray Eames, Diane Agrest eta Mario Gandelsonas, Patti eta Michael Hopkins, Elizabeth Diller eta Ricardo Scofidio. Eredu horrek emakume askori egonkortasuna eman dio, baita publizitatea ere behin baino gehiagotan. Argudia daiteke, noski, elkarte horretako gizonetzko kideak erraztu egiten duela gizonetzkoek osatutako elite profesionalean sartzea, eta haurrak hazten diren bitartean lanean jarraitzeko behar den egonkortasuna ematen duela. Baina, sarritan, gizon baten alboan lan egitea kaltegarri izan daiteke. Eraitza arkitektonikoan gizonaren eta emakumearen ekarpena zein izan den zehaztu nahi denean, jende askok jakintzat jotzen du emakumearen lana barnealdeekin edo diseinuaren dekorazio alderdiekin lotuta egongo dela, edo bestela bere gizonetzko lankideak diseinatutako proiektuak gauzatzen ari dela, marrazkitzaile edo administrari moduan. Honek autoretzaren auzia uzten du agerian, feminista askorentzat problematikoa dena, nahiago izaten dutelako diseinu arkitektonikoaren elkarlan alderdia azpimarratu.

Denise Scott Brownek modu irekiaz mintzatu da Robert Venturi arkitekto ezagunaren emakumezko kide bezala jasan behar izan duen sexismoaz, baita kritikariek zein kazetariek ideia eta diseinu proiektuak sortzean bere ekarpena ñimiñoa izan dela gauza jakintzat eman izanaz ere. Joera izaten zen bera autoretzat ez jotzea bien arteko jarduera arkitektonikoaren irudikapenetan: diseinuan eta idazketan. Scott Brownen esperientziak arkitekturaren sakabanaketaren auzia azaleratzen du. Kritikari feministek emakumeen lana sustatzen eta diseinu arkitektonikoan genero eta sexismo gaiak aztertzen egin duten lana oso garrantzitsua izan da. Arkitektura kritikari emakumezkoen tradizio historikoa sendoa da, hala nola: Ada Louise Huxtable eta Jane Jacobs hiri eta arkitektura diseinuaren arazoaz mintzatu dira, edo Margaret Schütte-Lihotzky eta Charlotte Gilman Perkinsek emakume erabiltzaileentzat onuragarriak izango diren diseinu erreformak sustatu dituzte.

Feminismoaz jardutean, emakumezko arkitekto askok "berdintasun" printzipioei jarraitu diete, eta nahiago izan dute kontratazioa areagotu eta arkitekto lanbidean dagoen moduan aurrera egin; beste batzuek, aitzitik, nahiago dituzte "desberdintasun" printzipioak, eta diseinu arkitektonikoa berdefinitzen dute dauden ereduak errotik bestelakoak diren moduetan. Genero desberdintasunak arkitektura praktikan duen eraginaz ere ikuspuntu desberdinak izan dira. Ikuspuntu erradikalenak iradokitzen du emakumeak gizonengandik desberdinak direnez, bestelako lehentasunak finkatzen dituztela produkzio arkitektonikoa antolatu eta diseinatzeko orduan. Sexuen arteko desberdintasunaren adierazpen nabarmenena jarduera arkitektonikoan lotu izan da tradizioz diferentzia biologikoarekin. Zenbait diseinatzaile feministak emakume gorputza hartu dute inspirazio arkitektonikorako iturri gisa, eta umontzi antzeko formak edo makurdurak diseinatu dituzte dorre falikoen ordeztu: itxitura kontzeptuan zentratutako

espazioak (aterpe eta espetxeak), barnealdearen eta kanpoaldearen arteko harremanean arakatuz (irekiguneak, hutsuneak eta zirrikituak). Baina desberdintasuna ikuspuntu sozial batetik aztertzen badugu, argudiatu izan da emakumeen sozializazioak balore sistema bestelakoa sustatzen duela, zenbait kualitate azpimarratzen duela, hala nola elkarlana, diskriminaziorik eza, etika bat arretaz, eguneroko bizitzaz, subjektibitatez, sentimenduez, konplexutasunez eta malgutasunez osatua, eta horrek diseinuaren bestelako ikuspuntu bat iradokitzen du. Elkarlotutako harremanen matrize sozialen eta emakume gorputzaren espazialtasun jariakorraren artean dauden analogiek espazio sozialaren irudikapenaren eta arkitekturaren lengoaiaren auzia azaleratzen dute.

Arestiko lan feministek, post-estrukturalismoan, psikoanalisian eta genero teorian inspiratuak, arkitektura kritikatu izan dute eraikinez gain, irudi eta testuez osatutako eta generoari lotutako irudikapen forma ere badelako. Arkitekturaz testu batez bezala pentsatzeak aldatu egiten du jarduera arkitektonikoaren definizioa, eta teoriaren lekua tokiz aldatzen du, arkitekturaren barrutik -diseinu arkitektonikoaren deskribapen eta praktika diktatzeko modu gisa- arkitekturaz kanpoko diskurtso batera, eta aukerak zabaltzen dira arkitekturaren praktika feministari dagokionez ikuspuntu desberdinak gauzatzeko.

Historialariek erakutsi duten moduan, arkitekturaren irudikapenak —marrazkiak, planoak, ebaketak eta argazkiak— generoari lotuta daude. Arkitektura klasikoan, forma arkitektonikoa definitzeko erabilitako lengoaia generoari lotuta dago: doriarra maskulinoa da, eta joniarra eta korintoarra femeninoak. Errenazimenduko arkitektoentzat, gizonaren gorputza erabiltzen zen geometria arkitektonikoan erabili beharreko proportzio sorta bat adierazteko. Nahi ez diren kualitateak, hala nola ahultasuna, dituen arkitekturari femeninoa esan izan zaio tradizioz; maskulino terminoa, berriz, erabiltzen da lortuagoak omen diren eraikinez ari garenean. Gaur egun arkitekturaren irakaspena eta diskurtsoa ematen diren lekuetan, bulegoan, medietan, erakundeetan eta lanbidean, joera izaten da «arkitekto»aren eta arkitekturaren figurak neutrotzat jotzea generoari dagokionez. Hil edo bizikoa da, ordea, arkitektura generoari lotutako konstrukziotzat jotzea, egungo jarduera arkitektonikoaren aurreiritzi heterosexual eta patriarkalak hobeto kritikatzeko.

Jennifer Bloomer, arkitekto eta kritikari amerikarra, ezaguna da genero, irudikapen eta arkitektura auzi hauei ekiteagatik. Bloomerren arkitektura haren testua da, eta haren lanak testu idatzien osagai irrazional eta subertsiboak abiarazten ditu: emakumetasuna. Bloomerrek paralelismoak finkatzen ditu eraikin baten sorkuntzaren —ustez kontrol eta zehaztasunezko ekintza garbia— eta erditze baten inguruko anabasaren artean, hartara kreatibitatearen generoa auzitan jarritz. Bere marrazki lizunez eta bere arkitekturan emakumearen zati anatomikoak txertatuz —

bularrak, esnea, jariakinak, odola, txitatzea, errapeak—, Bloomerrek marrazki arkitektonikoaren prozesuaren antzutasuna kritikatzeko du. Bloomerren laneko hitzen ustezko lerraduran aurkitzen da emakumetasuna: esate baterako, "pitxer handiak" hitzak, ingelesez bular handiak adierazteko erabiltzen diren hitzak, lekuz kanpo daudela dirudi arkitekturaren ingurumarian, baina Bloomerrek ohartarazten du pitxerrak edukigailu gisa erabiltzen direla, eta hori parekagarria dela emakume gorputzarekin, ideologia patriarkaletan adierazle hutsa den horrekin.

Lengoaia arkitektonikoaren genero-osagaia aztertzeke kezka teorikoetan oinarritzea lortzen zailagoa izaten da diseinu arkitektonikorako proiektu nabarmenenetan, hala nola obra eraikien. Doreen Massay eta Gillian Rose bezalako geografo feministei jarraituz espazioek erabileraren bidez genero-kualitateak eskura ditzaketela modu konbentzigarritz argudia badezakegu ere, ikuspuntu hori frogatzen zailagoa da diseinuaren asmoari dagokionez. Arkitekturan, asmoaren eta harreraren arteko erlazioa bereziki konplexua suertatzen da. Arkitekturak eraikin gisa, testu edo irudi gisa izan beharrean, zentzua komunika al dezake? Eta hala balitz, estetikaren auzia zein neurritan korapilatzen da erabilerari edo funtzioari lotutako arazoak direla eta? Arkitektura sistema adierazlearen genero osagaiari dagozkion auziak erabat artikulatu dituzte feminista iparramerikarrek, oraindik orain Luce Irigaray, Julia Kristeva eta Helen Cixous-en frantziar tradizio feministan inspiratuz. Feminismoaren eta arkitekturaren ibilbideak ikuspuntu zertxobait desberdina hartu du Erresuma Batuan, eta lerrokatuago dago politika marxista edo sozialista batekin.

Feminista sozialista eta marxistek "gizonak egindako" ingurunea kritikatu eta diseinu arkitektoniko mota desberdinak sustatu dituzte, gutxienez 70eko hamarkadaren amaieraz geroztik. Arkitekturaren plangintzan lan egiten zuten feministak, nola Estatu Batuetan hala Europan, kezkatuta zeuden batez ere genero desberdintasunek ingurune eraikiaren produkzio eta erabileran zuten eraginagatik, eta erreparatzen zuten gehienbat gizonek produzitutako ingurunean eta emakumeen esperientzietan, halako espazioen erabiltzaileak zirelako. Dolores Hayden plangile eta historialari feminista iparramerikararen lanak ohartarazten zuen gizonak sortutako ingurunearen zenbait ezaugarriak emakumea marjinalatzen zutela, besteak beste kale babesgabeak, publizitatearen sinbolismo sexistak eta pornografiaren merkatuak. Haydenen lehen proposamenak izan ziren ezaugarri sexistak horiek ezabatu eta haien ordean haurren arretarako ekipamenduak, etxe seguruak eta garraio publiko hobeak ezartzea, gizarte bidezkoago bat bermatzearren. Azken honetan, haren lanaren ildoak arraza eta genero kontuak izan dira, baita artearen, arkitekturaren eta espazio publikoaren arteko erlazioa ere.

Matrix 80ko hamarkadaren hasieran Londresen fundatutako arkitekto feminista kooperatiba bat da, eta haren lanak ere zerikusia zuen emakume

erabiltzaileentzako espazioen diseinuarekin. Matrixek kritikatu egiten zuen eraikuntza industriaren eta arkitekto lanbidearen antolakuntza, eta buru-belarri sartuta zegoen hezkuntzarekin lotutako lanean eta praktika arkitektonikoan rol alternatiboko ereduaren sustapenean. Bulegoaren funtzionamendua halakoa zen, non langile guztiei, beren esperientzia eta egiten zuen lan mota alde batera utzita, soldata berdina ordaintzen baitzitzairen. Kooperatibak bultzatzen zuen diseinu prozesuan erabiltzaileak kontuan hartzen ziren diseinuan hasiera-hasieratik eta arkitektoak, beren diseinuak inposatu beharrean, laguntzaileak ziren, geroko okupatzaileei laguntzen zien espazio alorreko beren premiak eta desirak betetzen.

Molde honetako ikuspuntuak auzi garrantzitsuak uzten ditu agerian profesionalarentzat eta krikikariarentzat, eta auzi horiek zerikusia dute arkitektoaren rolaarekin eta arkitekturaren definizioarekin. Lan mota honetan joera izaten da hain diskriminatzaile eta hierarkizatua ez den "ingurune eraikia" terminoa erabiltzea arkitektura hitzaren ordeztu, eta arkitektoaren zeregina ahalbidetzaile bezala definitzea jeinu bezala baino areago; ahalbidetzaile figurak bezeroei eta erabiltzaileei beren espazioen garapenean parte hartzea erraztu eta ahalbidetu egiten die. Feministek iradoki dute diseinu prozesuaren alorrean bertan adieraz litekeela desberdintasun femeninoa. Esaterako, *muf* arte-arkitektura lankidetzat taldearen arestiko lanak prozesuari ematen dio lehentasuna. *muf*en kasua interesgarria da. Beren burua feministatzat jotzen ez badute ere, arkitektura alorreko mediek halakotzat defendatu ditu, Matrix 80ko hamarkadako arkitekturaren feminista guztien baloreen defendatzaile moduan aurkeztua izan zen modu berean. Alde batetik, *muf* taldea feministatzat jotzen bada, orduan zalantzarik ez dago bere feminismoa ironikoagoa eta postmodernoagoa dela Matrixek ordezkatzeko zuena baino, haiek argi eta garbi lan egin nahi baitzuten emakumeentzat kooperatiba feminista batean. Bestetik, arriskutsu samarra iruditzen zait proposatzea praktika femenino bakar batek ordezkatzeko dituela une jakin batean eraikinak diseinatzeko dituzten emakume guztien baloreak.

Argi dago: prozesuaren garrantzia aztertu nahi badugu, orduan zein unetan bihurtzen da prozesua proiektu, eta non dago zehazki "arkitektura"? Elizabeth Diller-ek arestian landutako proiektu batean aurrez aurre ekiten dio auziari. Haren arabera, "arkitektura" alkandora sorta bat da, behin eta berriz lisatuak harik eta ezertarako balio ez duten formak bihurtzen diren arte, koreografia konplexu bati jarraiki. Haren lanak, etxeko lanen tekniken zehaztasunaren parodia bezala ulertua, praktika arkitektoniko kritiko moduan funtzionatzen du, formaz, funtzioaz eta generoaz zenbait auzi azaleratuz. Hemen, arkitekturak beste arte espazial batzuk erabiltzen ditu inspirazio iturri gisa. Arkitektoek taktika zein estrategia posibleak ikas ditzakete erreparatzen badute feministek dantza, zinema, arte eta literatura alorretan egindako lanean, baita hiriaren espazio publikoetan operatzen duten emakumezko artistenean ere, hala nola Niki de Saint Phalle, Maya

Lin eta Suzanne Lacy. Lengoaia, irudikapen, gorputz, estetika eta prozesu auziak kolokan jartzean, arkitektura beti doa gainerako arteen atzetik, eta are gehiago praktika feministan. Uste dut lotura garrantzitsuak daudela, norbaitek finka ditzan txandaren zain daudenak.

Testu hau "Women in Architecture" izenburuarekin argitaratu zen *Make, the magazine of Women's Art* aldizkarian 89.zenbakian, Londres 2000ko Iraila-Azaroa.